

BIZARRA TA ILLIA.

—Nola dek ik bizarra
beltza, ta zuria
ikusten dan bezela
buruban illia?
—¿Ille zuriya? mutill,
¿arrituba alago?
zergatik ogei urte
dituben geyago.



ERANZUTE ZUZENA.

—Aizak, tunela zer da?
—Tunela...tunelá...
zulo illun bat chistu
egiten dutela.

MARZELINO SOROA.

ASKO DIRAN BEZELAKO GAISOTASUN BAT.

Anton *itzontzi* gaisotu eta
Sendakiñ jauna echera
Ekarri zuten gajoagana
Zér zuen ikusitzera;
Ikusi orduko pulsua artuta,
Egiñ bear zenukena
Da, esan zion, bakar bakarrik
Egon alik *isillena*.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.